

BEZEROEKIKO HARREMANA

Brick-plastic enpresaren beste arlo garrantzitsuenetariko bat bezeroekiko harremana izango da; horretarako bezeroarekin harreman zuzena bermatzeko modurik egokienak hauek dira gure ustetan:



- Lehenik eta behin, aurretik aipatu bezala bezeroekin harreman zuzen bat mantentzea izango da helburu nagusia eta hori lortzeko, enpresan pertsona talde baten ardura denbora guztian bezeroekin kontaktuan egotea izango da

Gure helburua da metodo honekin, une oro enpresako pertsona bat denbora guztian bezeroarekin harremanetan egotea, eta bezeroak dituen zalantza edo arazoak konpon ahal izatea momentuan.

- Bestalde, bezeroarekiko tratua profesionala izango da; hau da, ez dugu tratu berezirik edukiko bezero batzuekiko.

Bezero guztiak berdin tratatuko ditugu eta egiten dizkiguten eskariak inolako oztoporik gabe gauzatuko ditugu.

- Bezeroak modu espezializatuan tratatuko ditu enpresak. Hau da; gure enpresarentzat oso garrantzitsuak dira bezeroak, horregatik bezeroak eskatzen dituzten eskarira moldatuko gara.

Bestetik guretzat bezeroak jartzen dituen epeak ere garrantzi handia dute, zeren uste dugu eurak jartzen dituzten epeak zerbaitetako direla eta horregatik ahal izanez gero betetzen saiatuko gara.

Aipatutakoa ondo betetzea gure enpresarentzat oso garrantzitsua da. Bezeroekin tratu ona izanez gero bezeroak pozik geratuko direlako eta ondorioz gure enpresari buruz hitz onak izango dute, eta horrela aurrerantzean bezero berriak helduko dira enpresara.





- Gure proiektuaren beste funtsezko arlo bat da, ONG desberdinekin harremanetan egotea modu egongokorrean. Zeren gure arlo garrantzitsuenetariko bat da ONG desberdinekin elkarlanean aritzea, horrela azpigaratuta dauden herrialdeek aurrerapausu bat emango lukete gure enpresaren eskutik, eta euren bizibaldintzak hobetuko ziren gure lanaren esker. Honekin guztiarekin, gure enpresaren gastu totala gutxitzea izango da helburua baina baita ere ONG edo elkarte desberdinak euren egitasmoak aurrera egiteko produktu merkeagoa eta kalitatea onekoa izatea eskuragarri.